



Viacovid

Viacovid mugikorreko aplikazio bat da. Bertan, herrialde ezberdinetan dauden Covid kasuak adieraziko ditugu eta horrela jendeak ez du hainbeste denbora galduko. Aplikazioa irekitzean mundu mapa agertuko da eta bertan nahi duzun herrialdearen informazioa agertuko zaizu herrialdearen gainean klikatuz. Herrialde bakoitzean Covid kasuak eta Covid-aren ondorioz dauden murrizketak agertuko dira. Honen bitartez, beste herrialde batera bidaiatu edo informazioa lortu nahi baduzu gure aplikazioak informazio guzti hori ematen dizu. Aplikazioa hizkuntza ezberdinetan egongo da. Aplikazioa dohainik deskargatu daiteke, Play Store eta App Store plataformetan. Aplikazioan hainbat iragarki agertuko dira baina, egongo da "Viacovid Premium" hilean 2€ ordainduz iragarki horiek ez agertzeko.